



Gizarte Hezkuntza

Sartzeko gomendatzen den profila

Gizarte Hezkuntzako ikasketetara sartu nahi duten **ikasleentzat gomendatzen den sarrerako profila** hau da:

- Espainiako batxilergoko mailari dagozkion gaitasunak izatea.
- Ikasketa-**espediente** ona izatea.
- Gizarteari **zerbitzu** emateko bokazioa erakustea eta oinarrizko eskubideekin eta bakearen kulturari eta sistema demokratikoari berezko zaizkion balioekin **konprometituta** egotea.
- **Lanerako** eta etengabeko **ahalegina egiteko** gaitasuna izatea, baita, une jakin batzuetan, estresari eusteko gaitasuna izatea ere.
- **Norbere** burua ezagutzea eta heldutasun maila nahikoa, eta profesionalen arteko harremanetarako gaitasuna izatea.
- **Irakaskuntza-ikaskuntza** prozesuarekiko jarrera konprometitua izatea.

Gomendio horiek Graduaren berezko gaitasunak garatzen laguntzen duten ezaugarri guztiei erantzuten diete. Beraz, hautaketa prozesuan positiboki balioetsiko dira elementu horiek.